

Emakume protagonistak

Historian zehar

Zer da protagonista izatea? Historiak badauka protagonistarik? Zeintzuk? Protagonista izatea gertakizun bateko aktore nagusia izatea da. Historiak protagonista asko ditu. Antzinaroko Kleopatra edo Julio Cesar adibidez. Guretzat ezagunenak Aro Modernoko Kolon eta Elkano direla esango nuke. Gehienak gizonezkoak dira, gizonezkoak diren protagonistak egin dutena mendeetan zehar gehiago hartu delako kontuan, ondorioz gehiago ezagutzen dira. Baina emakumeek historian egin dutena gehiago ikertu da azkeneko urteetan. Guretzat ezagunena Marie Curie zientzialaria da. Historiak ez ditu emakumeak irudikatu, boteretsuenak kenduta, erreginak. Emakumeak ezkutuan egon dira historia guztian zehar. Etxeak garbitzen, umeak zaintzen eta etxean sartuta egon behar zirela esan da beti. Baina azken urteetan emakumeen eskubideak asko borrokatu dira eta hori dena aldatzen ari da. Orain emakumeak historian eduki duten garrantzia erakusten ari da eta garrantzia bera ematen zaie bai emakume eta bai gizonei. Baina historian emakumeak eta gizonak guztiz berdinak dira? Gaur egungo protagonistak etorkizuneko berdinak izango dira ala gauzak aldatu egingo dira?